

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

## Zein da zure bezeroa?

Bere etxean baratz propioa edo apaintzeko landareak izateko nahia duten pertsonak izango lirateke gure bezeroak, batez ere denbora luze batez etxez kanpo egoten direnak edo landare gehiago izateko leku eskasa dutenak.



## Zein dira bezero horien ezaugarriak?

Loreak edo baratza edukitzeko desioa izan behar du. Animaliak edo haur txikiak dituzten helduek landareak puska ez dezaten altuera batean jartzeko aukera izango lukete; botanikariek, zientifikoek edota ekologistek proiektuen eta esperimientuen jarraipen konkretu bat beraien etxetik egiteko asmoa eduki ditzakete. Etxetik kanpo pasatzen diren enpresen jabeek nahiz garrantzizko postu bat dutenek ia kostu gabeko jana organikoa ekoiztu dezakete. Gure mezu-sistemari esker, langileek edozein lekutik baratza ureztatzeko ahalmena izango dute. Despistatu samar dabilenentzat ere balio du, higikorriari abisu bat iritsiko delako.